

Kontseilu Errektoreko kideen Ordainketa Politika

Kontseilu Errektorearen Ordainketa Politika dela-eta, adierazi beharra dago LABORAL Kutxaren Batzar Nagusiak aho batez (kontrako botorik eta abstentziorik gabe) onartu zuela berrikustea; batzar hori 2024ko apirilaren 27an izan zen, deitutako bazkideen % 5,70 bertaratu ziren, 150.818 botoren titularrekin (boto guztien % 41,60), eta hau erabaki zuen: “Kontseilu Errektorearen Ordainketa Politika onartzea, proposamen gisa aurkeztua, estatutuetan aurreikusitako eta indarrean dagoen ordainsari-sistemaren arabera, eta horren bidez Caja Laboral Popular, Coop. de Cr ditoko lehendakari laneko bazkideen ordainsarien eta balorazioko barne-araudia ezartzea, baina ez aplikatzea ordainketa aldakorra (bere bi osagaiak: ez indibiduala, ezta kolektiboa ere).

Gainerako kontseilariak Kontseilu Errektoreetako edo bere batzorde delegatuetako bertaratze-dieten bidez ordainduko zaie, bakoitzari egindakoen arabera. Bertaratzeagatik jasotzen den dieta dedikazioan ez ezik, kontseilarien arduetan ere oinarrituko da.

Osorik hartuta, 2024rako, kontseilarien ordainsarien kopurua guztira gehienez ere 400.000 €-koa izango da, eta zenbatekoa handitu egingo da hurrengo urteetan, aurreko urteko abenduko Estatuko KPlaren arabera.

Kontseilu Errektorearen esku uzten da kontseilarien ordainsariak banatzeko ahalmena bere erabakien arabera, betiere arestian adierazitako mugaren barruan.”